

Liburu Eguna ospatuko dute Deba eta Elgoibarren

ELGOIBAR. Elgoibar eta Debako bizilagunek Liburuaren Nazioarteko eguna ospatzeko aukera izango dute datozen egunotan.

Hasteko, Jon Zabaleta marrazkilariak 'liburuak nola ilustratzen diren eta komikiak nola egiten diren' erakutsiko die astelehenean LH3-LH6ko ikasturteren arteko gaztetxoei Elgoibarko Udal liburutegian (17.00etan).

Asteartean, irakurle talde batek Ernest Hemingwayren Paris era una fiesta liburua aztertuko du (18.00etan) eta, asteazkenean, HH5 eta LH1eko umeentzako ipuin kontaketa izango da (17.00etan), Ane Meaberen eskutik.

Deban, berriz, Kultur elkarteak liburuak askatuko ditu datorren astelehenean herriko leku desberdinetan 'nahi duten herritarrek irakurtzeko aukera izan dezaten'.

Kultur elkarteak herritarrak animatu nahi ditu ekimen horretan parte hartzera 'liburuak askatuz, elkartrukea eta kulturaren hedakuntza sustatuz'.